

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

354n. zenbakia

2009 Azaroa

ZAR

23' tik 27' ra Euskal astea 7:30 ospatuko da egoitzean



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2009-2010 IKASTURTEA

BIZKAIERA 42. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen, eguasten eta
barikuetan edo astearte eta eguenetan
Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan
Ordaña: 140 €
Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

Asierea: Urrillaren 13'an

42.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves
Horas: Mañana, tarde y noche
Curso completo: 140 €
Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!



“Agur!! Solozabal ta Solozabal’ tar on-“Paulin”

Aita Santi Onaindia, Olazar’ tar Martin eta Arrinda’ tar Anes’ekin batera ezagutu neban “PAULIN”, EUSKERAZAINTZA’ren batzarretan orain dirala 30 urte iguru.

Aita Santi il zanean eta Olazar’ tar Martin’ egaz Euskeraz idazten asi, gure idaz-lanak ZER eta EUSKERAZAINTZA’ko aldizkarietan agertu zitezzen, astero ia egun bitan agurtzen neban, eurak bizi ziran Mungia’ko parroki-etxean.

Baita-ta EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEA’ren batzarretan, sekula ez ebalako utsik egin Olazar’ tar Martin’ egaz batera.

Gugaz alkartzen zanean beti umore onakin eta olerkari ondokoi-lez, gure alkar-izketak, beti izan ziran irri-mirrikazkoak⁽¹⁾ eta ainbat barre egiten genuen, bata-besteari esaneakoak, sako-nezko txantxetan edo ta zirto-gogoz⁽²⁾ egiten genduzanean.

Batzarretan berba gitxikoa zan, baiña oarkari⁽³⁾ aundia, eta beren zeztunak beti joaten ziran artez arazoaren biotzera.

Bere apaiz botugintzan JAUNGOIKUA’gaz guztiz maite-minduta, ibili dan leku guztietan eta Mungia’ko errian batez be, erritarren artean beti euki eban Jesus’en mezua ta Ama-Birjiña’ren maitasuna. Eta bere erriko egurats-aldietan nekez ikusiko gendun, eskuetan zillarrezko errosario edo agurtza barik gabe.

Euskalerrriaren seme izanez gain, beragaz sakon maite-minduta egon zalako, ele-eder idaz-lan bidez berari eskañi eutson bere barnean euki eban gogo ederrena.

Gitzi ez dana izan, Eguna, Karmel, Olerti eta Deia’n “EGIEDER eta PAULIN” izen-ordeakaz idatziz gain, ama-bost liburu-be idatzi ebazan, Euskalerrri’ko oiñarriaren izaera ta jakintza, edertasunez Euskalerrriari zabalduz.

1.-Irri-mirrikazko alkar-izketak = conversaciones irònikaz. / 2.-Zirto-gogoz = dicho con ironia fina / 3.-Oarkari = observador.

Beren askeneko olerki-liburua "EDER-MIN" da, eta lenengo eresi´ak au esaten dabe:

"EDER-MIN"

Odolaren indarra
berez doa aurrera
gizarte bizian,
berekautan dario
suzko indar bizia
azurren artian.

Gizonaren bizia
gora goraka doa
goizalde argian,
eguzki almentsua
zeru aunditik dator
aurrerapidian.

Bizitza osasuna,
bipil, doa odolez
ezti gozoetan,
gizona sendo doa
laguntza biziagaz
mamin bizietan.

Argia ta odola
biak bat egin dira
osasun biziaz,
izarrez indartzen da
odol gorri gorria
bizitza maitiaz.

Biziaren ardatza
biotz sendoan dago
taupada ederrez,
biotza ta burua
lagun kutunak dira
biak maitasunez.

Bizitz osasuntsua
odol gorritik dator
itzak lagundurik,
odolaren ederra
esker-miñetan dago
biotzez ondurik.

Solozabal ta Solozabal´tar Paulin 1.912´an Loraila´ren 4´an Etxebarria´n jaiotako, eta Mungia´n il, 2.009´ko Irailla´ren 1´ean.

2.009´an Irailla´ren 3´an, Mungia´n Andra Mari eta San Pedro apostolua´ren Parrokia´n egin ziran bere Arima´ren aldeko elizkizunak, Blazkez´tar Rikardo Bizkai´ko gotzaiña zala mez-emaille, beste ogeita amar apaiz-lekaide lagun eukazala.

Gotzaiña, Gaztelera asi zanean, ni eleizatik urten bear izan neban, enebalako on artzen Paulino eta Euskaldun guztiai alan illarkatzea⁽⁴⁾, Etxenagusia ta Uribe´tar Karmelo´ri egin jakon antzera.

Eta gitxiago, mez-emaille danak ez ba-ebezan ezagutzen ildako Paulin ta Euskaldunak.

Ogeita amar apaiz-lekaide egon ziran an, Paulin ondo ezagutzen ebenak, eta lotsa elburu dala, ez zan izango naiko meza orren buru izanagaz, eta mez-emaille-sermolaria ondo ezagutzen ebanak emon egiala ?.

Gizartean "LOTSA" da leenengo baldintza, eta erritarrak zelan joango dira mezara eta ekanduzko oiturak zaindu, bertan erritarrak guzurtu egiten ba-dautse.



(4) Illarkatzea = faltar al respeto.

Gu Bion alkar ezagutza:

Ni goian esan dodan lez, Aita Santi´gaz Tolosa´n egin zan batzarrera EUSKERAZAINZA EUSKERA´ren ERRI AKADEMIA sortzeko zala joanda, ezagutu neban Solozabal´tar Paulin, Olazar eta Uribe´tar Martin, Arrinda´tar Anes, Augustin Zibikarai, Zubiri´tar Iñaki, Jon Erramun, Latxaga, Latiegi´tar Bizente, Aita Lino, Oñatibia´tar Manu, eta ainbat gizon-emakume argitsuagaz batera. Ortik aurrera beti batera ibilita, Euskerazaintza eta Euskerazale´aren aldeko ekintza-bidez.

Eta ITZA´ren gandik, zer ulertzen eban berak jakin daigun, bere "EDER-MIN" olerki liburutik artuko dot beren gogamena:

"ITZA"

Gizonaren argia
urrezko itzez dator
giza batzarrean,
itz ederraren tajuz
giza batzar guztia
argituz lurrian.

Jakituri bikaiña
itz jariotan dator
bizitza ondurik,
argia ta ederra
jakituriak dakart
biak alkarturik.

Euskaldun itz bikaiña
zoramenetan dago
auzkoen miñean,
euzko jakituriak
urratuten dau itza
alkartasunean.

Gora goraka doa
euskaldun itz jatorra
edertasunean,
giza jakituria
ardura bitxiz dabil
izkuntz bikaiñean.

Eusko izkuntz jatorra
zoramenetan dago
euskaldun zelaian,
jakituri ta itza
biak alkartzen dira
adimen argian.


Bikainki ta bikainki
itzak edertzen dabe
euzkoen izketa,
izkuntz zoragarria
agertzen da lur ontan
itzak eraginda.



Agur Paulin, egun aundira arte !!

Atutxa´tar Paul
ZORNOTZA´n 2.009´an Iraila´ren 7´an

Mario Benedetti



Atsegin dudan jendea.

Zirrara sentitu baina bultzada bearrik ez dutenak, zer egin aipatu bearrik ez zaienak, badakitelako zer egin eta ekiteko gauza direlako.

Ametsak maite eta amets oriek euren zati bilakatu arte amesten jarraitzen dutenak.

Ekintzen erantzukizuna bere egiten dutenak, amets bategatik ziurtasunak utzi eta ziurtasun ezean jardutera ausartzen direnak, aolku orekatuak alboratuz konponbideak Jainkoaren esku uzten dituztenak.

Aldamenekoekin eta euren buruarekin zintzo jokutzen dutenak, egun berriagatik bizitzako alde onari gogoz begiratzten dietenak, aldioro aal duten onena emateko prest, bizitzagatik eskertuta irribarrea eskainiz, ezeren truke laguntzeko prest.

Aurrez aurre eta mindu gabe kritika eraikitzailea luzatzen didatenak. Tentuzko pertsonak direlako.

Justiziaren senari lotzen direnak. Adiskide ditut.

Alaitasuna balioztatu eta babesten dutenak.

Txantxetan bada ere, bizitzari umore ona jartzen irakasten digutenak. Txikien nortasuna sekulan galdu ez dutenak.

Euren kemena besteei edatzen dietenak.

Esan garbikoak, edonoren erabakiei argudio bidez aurre egiteko gai direnak.

Leial eta iraunkorrak, zerbaiten lortze-bidean amore ematen ez dutenak.

Irizpideko direnak, anka sartu edo zerbaitetan ezjakin direla onartzen dutenak. Euren akatsak aitortu ondoren berriro ez okertzen saiatzen direnak. Ezbearren aurka aalegintzen direnak.

Irtenbideak aurkitzen saiatzen direnak.

Barne gogoeta lantzen dutenak. Besteen irizpide neurrian edo ageriko itxuretan geratzen ez direnak. Besteak ez epaituz, beste oriek ere epaitu ez gaitzaten eskatzen dutenak.

Bereko nortasuna azaltzen digutenak.

Barruko ez dena buruz apaintzen saiatzea gizakion akats andiena dela ulertzen dutenak.

JENDE ARRUNTA izateko batez ere zera lantzen dutenak: urbiltasuna, kuraia, elkartasuna, ontasuna, begirunea, patxada, balioak, alaitasuna, itxaropena, esker ona, jakinduria, amestea, apaltasuna, damutzea, eta norbere zein besteeikiko maitasuna.

onelako jendeaz bat egiten dut geratzen zaidan bizitzarako, naiko baitzait oriek nire alboan izateak.


ESKERRAK JENDE MOTA ORRETAKOA IZATEAGATIK.

Ezinezkoa da garaipena eskuratzea galtzen jakin gabe. Ezinezkoa ibiltzea erortzen jakin gabe. Ezinezkoa asmatzea anka sartu gabe. Ezinezkoa bizitzea bizitakoa gogoratu gabe.

Ospea ez datza sekulan ez erortzean, bear den aldi guztietan altxatzean baizik.

OSO JENDE GUTXIK LORTZEN DU ORI.

Zorionekoak soiltasun berberaz jasotzen dutenak garaipena edo porrota, asmatzea edo anka sartzea...



Une latzak



inbat urte da Ameriketean artzai egon nintzana. Ogeita bat urte neukoizan iru urterako lan kontratua sinatu nebanean, Californian artzain aritzeko. Nola eta zergatik galdetuko dozue... Ba oso erreza da, baserriak ez eban danentzat emoten eta erriko gazte asko ebilen izena emoten artzain izateko Ameriketako lur eremu zabaletan, emen baino bizimodu ohea izateko itxaropenarekin.

Itsasontzian nindoan leen aldia zan eta irrikaz nengoan lurralde barriak ezagutzeko. Laster egin nebazan lagun barriak, Aulestiko Josu eta Markinako Hilario ziran itsasontzian bertan egindako bi lagun barriak.

Bi lagunak ez joiazan ni nindoan leku berera, beraiek Idaho eta Nevadarako eukien berba

emonda. Irurotatik bat bere ez ginan isilik geratzekoak eta makina bat berba egin gendun geure elmugara iristeko egin genduzan iru astetan.

Josu zer gertatzen jatzu? Galdetu neutson nik jakin-minez.

Ezer be ez, erantzun eustan.

Zer edo zer bai! Atzo ez zinan orrela egon.

Neskalaguna datort gogora eta pena itzela artuten dot beste iru urtean ez dodala ikusiko jakinik.

Baina idatziko deutzazue alkarri, alan da ze, ez zaitetz larritu motel. - Ez da gauza bera idaztea eta berarekin aurrez-aurre egotea!

Momentu aretan berbetan asi zan ordu arte isilik egoan Hilario;

- Ori begibistakoa da laguntxu, baina orain ezin dogu atzera jo, eutsi egin bear deusagu zelan edo alan, bestela denbora baino leen itzultzen baldin bagara, errian atzamar erakusleaz seinalatuko gaitue, eta agur gure onorea.

- Bai ba, bai ba. Ori dana badakit, baina triste egoteko eskubidea badaukodalako itxi eidazue gura dodan moduan egoten.

- Ia ba, bakean utxiko dogu momentuz gure Josu, esan neutson Hilariori.

Geuk be sentitzen genuen errimina, eta etxekoan berotasun falta. Etxetik urrun ginoiazan eta ez genekian zerekin aurkituko ginan lur arrots aretan.

Bidaia erosoan zan eta lo askorik egin ez arren pozik gengoan egun batetik bestera lurra ikusteko itxaropenaz.

Inoiz ikusi gabeko txori andi batzuk agertu ziran itsasontzian itzul-inguruka. Albatroak zirala egin eban zarata ango batek, eta ori lurra urbil egoenaren seinalea omen zan. Azkenean iritsi zan eguna, Floridako kostaldea begien aurrean genduan.


Lur artu eta gure zain egoan gizon batek kontratua erakusteko eskatu euskun. Talde ezberdinak osatu ziran, baktza nora joian lanera kontuan artuta,

an jendea banatu egin zan. Ni nengoan taldean, gailegoen eta extremeñoen artean nafar bat, eta iparraldeko bat egozan ain zuzen. Gainontzekoekin baino leenago, beraiekin egin nintzan adiskide, batez be euskaldunak ziralako, nik gaztelera ez neban menperatzen eta euskara aldiz bai.

Sartu ginduezan pick-up batean era deserosoan eta or abiatu ginan gure lan lekua izango zan ardi eremuraino.

Eguraldia ez zan eguzkitsua eta lepoko ileak tente iminten euskuzan ipar aizeak. Urduri gengoan, nora eroaten ginduezan ez genekiala. Lau ordu luzez bide malkartsua bezain zatarran igaro ostean iritsi ginan eldu bearreko tokira. Lekua leua zan eta lantzar berde eta amaigabeez osatzen ziran bazterrak. Zoragarria zan benetan, ez eukon zer ikusirik etxean utxitakoarekin, usaina bera be, ezbardina zan. Etxean utxi genuenaren antzeko zer edo zer deskribatzekotan ortzia litzateke. Zerua geure erritik ikusten zan moduan ikusten zan, urdin eta odei mardul bezain zuriekin. Gaua iritsitakoan, neure sorlekuko baserriaren etartetik ikusten zan izarratua ikusten neban. Artizarra eta gainontzeko; izar, planeta, astro gei izar ieslari ugari egozan buru gainean geneukon ortzian.





Urrengo egunean goizean-goiz jeiki ginan, egunsentia baino leen, oindino gauontzaren uluek lagundurik. Gau aretan ez neban lorik egin, irrikaz bainengoen lanean asteko.

Kafe beroa artu, lagunen aurrean burua aurkeztu eta ea zaldi gainean bagenekien galdetu euskun nagusiak.

- Eremu oneetan lan egiteko, zaldi gainean ondo ibili, errifleaz tiro egin eta bakartasunarekin bizitzen ikasi bear da leenbizikotz, inoen Etxalar inguruko nafar gazte arek.

Nik ez nekian zaldi gainean ibiltzen, baina laster ikasi neban ikasi bearrekoa, zaldi gaintetik iru-lau bider jausi ostean, ondo moldatzen nintzan zearo cowboy langintzan.

Zer ikasi asko egoan ogibide aretan, baina berez-berez etorriko ziran irakaspen barriak.

Alde batetik, Lapurdiko Piarres eta Nafarroako Xabierrekin adiskidetu nintzan eta beste alde batetik, beste bi lagun egin nebazan, Cristo eta Rey ziran, Border Collie errazako bi txakur. Euron izenen zergatia, neure nagusia karlista zalako omen zan, ori esan eustian beintzat. Arrazoi faltarik ez dago zer nolako izenak diran kontuan artuta.

Gogor egiten genduan lan, eguzkitik eguzkira joakuzan gure lan orduak, erlojurik ere ez geneukon, baina batez be gozeak esaten euskun eguneko zein ordutan bizi ginan.

Gauetan ez zan kantu eta konturik falta suaren inguruan, lo egiteko gogorik izan ez arren, gorpuzak, berak beartzen ginduzan lotara. Zoritxarrez, batzutan zelatan egotea suertatzen zan, ,koioteak, pumak edo artzak egozalako itxuraz ain bakartiak ziran lur eremu aretan. Itxuraz dinot, guk ikusi ez arren bizidun andana ebileko gure inguruan, bai lurrean, aidean edo ibaietan barna.

Lau milatik gorako artaldea zaintzea ez zan langintza erreza. Batez be ibaia gurutzatu bear zanean edo-ta koiotereren batek ardi batzuk aurretik eramaten ebazanean zailtzen zan gura lana.

Artaldetik ardi batzuk alde egin bezain laster, zaldi gainean jarri eta galapan joan bear izaten zan, ardi ieslarien atzetik. Arin antzemanenez gero, txarto be ez, baina sarri gauean izaten ziran basa-piztien erasoak eta urrengo goizean ainbat kilometro zaldi gainean egin eta gero aurkitzen zenduzan ardiok, batzutan ilik, baina geienetan bizirik, arnas-estuka eta nondik joan bear eben ez dakitela.

Uxu ni izaten nintzan ardi galduen bila abiatzen zana, asko gustatzen jatan, batez be tiro egin bear nebanean. Urrunetik jo-muga tiroz aparatzen tre-bea nintzan, or ikusten zan oilgorretan aitarekin sartutako orduen emoitza.

Artza ene bizitzan bein ikusi neban, baina pasoa joiala, ez eban artaldea erasotu, alan da ze, ez neutson tiro egin, txakurren zaunkek oartarazi ninduen eta orri esker ikusi aal izan neban, artza an zala. Puma barriz, ez dot sekula ikusi, berak utxitako lorratsak ikusi dodaz ordea, eta baita bere orruak entzun be ilargi beteko gau argian.

Arkumeak jaiotzerakoan asten zan benetako eromena. Artxoei jaiotzen laguntzeaz gain, esnerik edan gura ez ebenei lagundu bear izaten geuntsen, eta beste batzutan aldiz, euren arkumeei esnerik emon gura ez eutsien ardiak lotu eta gure laguntzarekin edaten eben orrelako ama suertatzen jaken bildotsak. Zer esanik ez, erditzean iltzen ziran ardiek, umezurtz uzten ebezan artxoak geuk asi bear izaten genduzan biberoiarekin edo bi arkume izaten baebazan ardi batek, txikiena iltzen gendun, larrua kendu, ama gabe geratzen zan artxoari gainetik jarri eta esnea emoten asten jakon jaiotzez berea ez zan artxoari.

Orrela esanda biotz gabeak ginala esan eikean nonork, baina ez egoan beste urtenbiderik.

Arreei koxkobiloak moztu bear jakezanean be, aginak erabiltzen genduzan langintza orretarako, askoz ere azkarragoa zan eta gutxiago sufritzen eben artxo gixagaixoak.


Erabiltzen genduzan arropak be aalik eta erosoena izaten ziran, nik txapela erabiltzen neban bitartean, beste batzuk bertako kapela erabiltzen eben. Eguraldia ez zan beroegia, beraz txapelak ez eustan aparteko berorik emoten. Prakak, alkandora eta zaldia zirikatze-ko espuelak, ezinbestekoak ziran guztion janzeran.

Gauetan suaren inguruan istorioak kontatzeko aukera izaten zan, baina batzutan unatuta gengozan eta orduan mosugitarra jotzeko aukeraz baliatzen nintzan lasaitzeko asmoz. Ez zan inor kexu, eta tira! Ez da gitxi...

Otsoen uluak entzuten genduzan urrunetik, baina inoz ez genduan jasan euron erasorik. Bein, nere biotzean betiko orbana itxiko eban zeozer gertatu zan.

Gainontzeko egunen antzera artaldea biltzen ari ginala, indio batzuk agertu ziran bat-batean. Lau ziran guztira eta armaturik etozen. Asieran ez geuntson aparteko garrantzirik emon, baina zeozer arraroa somatu genduan eurretarike bi gugana urbiltzen zirala ikustean.





Gure nagusia beraiekin berbetan ari zan, batek ere ez genekian zertaz mintzo ziran, orrelako baten indioak nagusiarri tiro egin eutsen. Une beretsuan beste indio batek, Piarres bota eban, guzti orren lekuko Xabier eta biok ginan, eta ezin genduan sinetsi ikusten ari ginena. Inguratu ginduezan, eta tiroka asi orduko, zalditik jaitsi eta Gure Aita otoitz eginaz asi ginan, indioak begira-begira genduzan bitartean, Xabierrek nik baino ingeles geiago ekien eta orri esker, indioak galdetu euskunean nongoak ginan, guk ulertu aal izan geuntson.

- Euskaldunak gara, erantzun genduan biok batera.

Mexikar eta gringoak ziran artzain batzuk eraso egin eutsiela azaldu euskun indioak, ainbat jende akatuz, euron artean ainbat zaar eta ume`. Orregatik mendekuari bide emanik erasotu euskuen orrez gain euren erreserban gengoan baimenik gabe,.

Isiltasuna zan nagusi, gu bitartean isilik, bihotza estarrarian sentitzen genduela gengoan, mutu eta alkarri begira. Ezer esan gabe egin eben alde, etorri ziran bidetik. Arrapaladan urbildu ginan nagusia eta Piarres egozan lekura, baina berandu zan, ilda egozan eta.

Ni artaldea zaintzen geratu nintzan bitartean Xabier laguntza eske abiatu zan. Luze egin jatazan orduak, areik eta Xabier laguntzarekin eldu zan arte,

Nagusia ikusi neban leen aldiz, euskalduna zan, baina bertakoen gisara egoan jantzita eta ez jakon antzematen nongoa izan zitekean. Eurokin sheriff-a eta bost laguntzaile etozen. Guk berbaz-berba azaldu geuntsen gertatutakoa. Orduan jakin izan genduan ainbat kaltetu izan zirala gutaz aparte.




Eraman ebezan gorpuak eta karro- kanpoarekin abiatu nintzan mendebalderuntz, atzean Xabier eta nagusia artaldearekin etozen bitartean.

Pasarte odoltsu orrek eragin andia izan eban, nigan beintzat. Ez neban an jarraitu gura. Ezin neban burutik kendu erasotu ginduezan eguna. Ez-oizkoak zirala indioen erasoak esan arren bein eta barriz, nik etxera itzuli gure neban.

Beste urte t'erdi igaro neban Ameriketean artzain. Andik ona etorri nintzanean penarik geien eman eustanak, zakurrak bertan itxi bear izana izan zan. Xabier be ez neban barriz ikusi . Guztira iru urte izan ziran, ori baitzan kontratuaren epea. Askok ainbat kanpaina egiten eban, baina ni kanpaina batekin asetu nintzan.

Orain emen nago, baserriko etartean ilobak nola jolasten daben ikusten. Eta negarra datorkit begietara ni ikusten ari naizena ezin izango nebala ikusi pentsatzean, zorigaiztoko egun aretan, neu izan banintz tiroa artu ebana. Ainbat euskaldun il zan etxetik urrun eta tristetu egiten naz gizon areek dana emon ebela jakinik, ezin dabe euren ilobataz gozatu.





Are geiago, maite eben leku eta pertsona oro ukatu egin jakez, bizitza kentzean. Gaur egun be, gogora etorten jatez faltan daukodazan adiskideak. Bertako zuaitzetan geratzen da oindino bizirik euron testigantza. Erreka baztarreko altzatan, izenak eta nongoak ziran imini ebiezan, eta altzak oso zaarrak izan arren, an dagozala irmo eta bizirik jakin dot oraintsu.

Gatx deukot bertara joaten, baina beti izango dodaz oroi-menan eta batez be biotzean. Alferrik ez zirala ii jakinik, lasai ilko naz neu be.

INDIANOA





Nere sentimentuak sentimentuz

Sentimenturik gabe
 Gure biotzean
 Beñere ezta izango
 Pakerik munduan
 Elkar ezin ikusiz
 Naiko kezka aldean
 Ola ez lattike bizi
 Iñongo lurrean

Nik esperantza banun
 Juanden aspaldian
 Au mudatuko zela
 Alako onbatean
 Baño trixterik nago
 Gauz asko ikustean
 Konponketerik ezta
 Jendean tartean

Utzi aurrera jauten
 Gazte guzieri
 Denak ongi dakigu
 Berak dire nagusi
 Elkarrerri lagunduz
 Beardute bizi
 Oraindik gauza asko
 Beardittute ikasi

Politikan beñere
 Eztut artu parte
 Gorroto izugarria
 Askoz badaukete
 Minbizia oraindik
 Sendatuko dute
 Gorrotoan botika
 Oraindik ez dute

Ok gezurrak badira
 Barkatu dezazte
 Nik larogei urtetan
 Asko ezdakit uste
 Gauz asko ikusita
 Jartzen naute trixte
 Aurra ttiki guziak
 Pozez jartzen naute

Luzi a goñi

olerkia



Nafarroako mutil zarrak

Mutil zarrak ugari
 Daude Nafarroan
 Dirua ere naiko
 Gordeta bankuan
 Laguna beardute
 Gaxoak goatzean
 Zangoak berotzeko
 Otzak daudenean

 Oraindikan gogoa
 Badute ezkontzeko
 Gazte batekin obe
 Biotza pozteko
 Gañerakoa gero
 Dago ikusteko
 BIAGRA artu dezazte
 Ongi kunplitzeko

 Orain ez daude gauzak
 Lenago bezela
 Libertadian bizi
 Obea ez alda
 Konpromixorik gabe
 Orixe bearda
 Bakoitxa bereakin
 Biotzeko albada

Luzia Goñi – Basaburukua

olerkia



Nere trikitixak

Txepetxak kantatzendu
 Sasi bazterrean
 Txepetxak kantatzendu
 Sasi bazterrean
 Txantxagorriak dio
 Elurra gabea
 Ai ai elurra gabea

Ixkixuak goseak
 Karraxis aidira
 Ixkixuak goseak
 Karraxis aidira
 Zozoa eta belea
 Zuritzen aidira ai ai
 Zuritzen aidira

Entzun dut nik gabea
 Ontza bat kantari
 Entzun dut ni gabea
 Ontza bat kantari
 Nafarroan badaude
 Gaur onza ugari ai ai
 Gaur ontza ugari

Egaztiak gaur dittut
 Nere kantuan
 Egaztiak gaur dittut
 Nere kantuan
 Nik ere izan dittut
 Txoriak buruan ai ai
 Txoriak buruan

Luzi a Goñi Aizarozko Olakoa
 Orain Iruñeko alde zarretik

olerkia

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2009-11-23.— Atutxa´tar Paul

2009-11-24.— Barroeta´tar Klaudio

2009-11-25.— Uriarte´tar Ana

2009-11-26.— Larrea´tar Angel

2009-11-27.— Atutxa´tar Paul

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi — 14 - 2ª esk.

Ordua: Zazpi´ta erdietan

EUSKERAZALEAK



IPUIN SARIKETA

(BILBAO´KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA´K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA´k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER´en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA´ren etxean (Bilbao´ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer´en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- **Mesedez bialdu CD edo disketea**

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....´tar
..... kalean (auzoan..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

GERNIKAKO ARBOLA
DA BEDEINKATUA
EUSKALDUNEN ARTEAN
GUZTIZ MAITATUA
EMAN DA ZABAL ZAZU
MUNDUAN FRUTUA
ADORATZEN ZAITUGU
ARBOLA SANTUA

MILLA URTE INGURU DA
ESATEN DUTELA
JAINKOAN JARRI ZUELA
GERNIKAKO ARBOLA.
ZAUDE BADA ZUTIKAN
ORAIN DA DENBORA
ERORITZEN BAZERA
ARRAS GALDU GERA

EUSKERAZALEAK

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO